



Belartza 2-ko Plan Orokorren Aldaketa Puntuala: baina zer da hori? Adarra jo nahian dabilta ala?

Joan den asteartean Donostiako Udal Batza Aretoan ospatu zen Belartza 2-ko Plan Orokorren Aldaketa Puntuala tramitatzeko "Herritarren Partaidetza Programa" izenekoa. Deialdia, jaso genuen egunean bertan Udalari salatu genuenez, aste bete lehenago jaso genuen. Sinestezina iruditzen zaigu deialdia korrika eta presaka egin nahi izana eta are gehiago gaiaren konplexutasun teknikoa dela medio. Saldu nahi izan dute partaidetza balioan jarri nahi dutela, baina orain arte gai honekin itxurakerian baino ez dira gelditu. Bilkuran jendea haserre agertu zen eta hemendik gure salaketa berretsi nahi dugu.

Baina guretzat hori ez da okerrera. Okerrera aurkeztutako plan eskasa eta informazio falta ikaragarria eta atzetik dauden irregulartasun eta ilegalitate guztiak. Lur jabeek, sustatzaileek, prozesua abian jarri nahi dute kosta ala kosta, eta Donostiako Udala haien laguntzaile zuzena bilakatzen ari da. Hori marka hori! Lur industrial izatetik komertzialera, inongo justifikaziorik gabe, hori pagotxa! Gainera, saldu nahi izan digute proiektu berria berdeagoa dela eta nolabait gure eskerei hein batean kasu egin dietela eta horregatik Errekaxulo babestuko dutela. Haien eskubideetaz hitz egin ziguten eta indarrean dagoen 2010eko Plan Orokorra babesten zuela aurreko Plana, orain aldatu nahi dena, alegia. Bidean, ordea, gauzak oso bestelakoak dira. Zergatik?

- 1.- Plan Partziala onartu zenean ez zelako Ingurumen Gaineko Inpaktu Ebaluaketarik eta ondorioz deuseztatuta legoke onarpena.
- 2.- 2010eko Plan Orokorrekin "legeztatu" nahi izan zuten, baina ebaluaketa egin gabe jarraitzen zuten. Gainera Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Iraunkortasunerako Txostenak zioen Belartzako zuhaiztiak (60.000 m²) mantendu behar zirela. Ez zuten aurreikusi, baina ORAIN-GO planak ezta. Behartuta zeuden basoa kontseerbatzera, baina Errekaxulok azalera horren erdia ere ez da!
- 3.- Planak garatzeko epe legal batzuk daude eta hooriek gaindituta, eraikitze eskubide horiek galdu egiten dira. Hemen nabarmen epe mugatik gaindituta daude, beraz Udalak ez die ezer zor.
- 4.- Saldu nahi diguten ez da zerotik hasten, gure ustez aurretik delitu ekologikoa izan zelako. Hor daude 4 futbol zelaien azalera duen harripilaketa Europa mailan babesa duen habitat baten gainean eta baimenik gabe hasi zena. Edozein ingurumen azterketa egiten dela, kaltetaturiko eremu baten gainean egingo da, eta ez da kasualitatea izan.

Hortaz, ez dugu ulertzen nola Donostiako Udalak babesten ari den hain irregularitasun zein ilegalitate mordo pilatzen dituen. Aurkeztutako plana gabe- ziz beteta dago eta ez du ere betetzen aipaturiko 2010eko Ingurumen Iraunkor- tasuerako Txostenak aginduakoa. Material pilaketak Belartza gainan darrai.- Gauzak horrela eta halako baldintzetan egindako bilerari partaidetza prozesua deitzea adarra jotze hutsa iruditzen zaigu.